

**JENDAURREKO INFORMAZIOA. Trazadura proiektua, N-121-A errepidea
211 bide bilakatzeko, 22+500 eta 40+900 KPen artean.**

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduaren 35. artikuluan xedaturikoa betez, ondoren aipatzen den espedientea jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuaren bulegoetan (González Tablas kalea 9, Iruña) eta Garapen Ekonomikorako Departamentuan (San Ignazio etorbidea 3), jendea hartzeko orduetan, jarduera horretan interesa dutenek azter dezaten, eta, nahi izanez gero, bidezkotzat jotzen dituzten alegazio, iradokizun eta oharrak aurkez ditzaten epe horretan.

Aditzera ematen den egintza: ingurumen ukipenearako baimena.

Jarduera: trazadura proiektua, N-121-A errepidea 211 bide bilakatzeko, 22+500 eta 40+900 KPen artean.

Sustatzailea: Azterlan eta Proiektuen Zerbitzua (Sustapen Departamentua).

Udalerrria: Ultzama, Lantz eta Baztan.

Iruñean, 2019ko martxoaren 12an.-Ingurumen Eraginaren eta Paisaiaren Ataleko burua, Amaia Casado Pérez.

Iragarkiaren kodea: F1903701